

## BEZERO SEGMENTUA

### BEZERO IDEIA:

-Gure zerbitzua printzapalki goizez eta arratsaldez ikasten duten ikasleei eta langileei zuzenduta dago.

- **16 urte edo gehiago** eduki beharko dituzu:

1. Gazteak batxilergoa egitean normalean kanpora ikastera joaten dira. Donostian, eskola eta unibertsitate asko daude beraz gure zerbitzua erabiltzeko aukera gehiago izango dituzte..
2. Gure lokalaren ondoan lana egiten duten langileak nekatuta egongo direnez, gure zerbitzua lagungarria izango zaie.
3. Turista bat deskantsatzeko tokirik ez badu, gure lokalak lagundu diezaioke.
4. Beste pertsona batek (turista izan edo ez) gustora lana egiteko lekua bilatzen badago, gure zerbitzua lagungarria izan daiteke.

- Gure idea, lokala unibertsitate baten ondoan ezartzea da horrela eskolatik ateratzen diren ikasleak bertan geratzeko aukera izango dute.




### ETORKIZUNERA BEGIRA:




Etorkizunera begira, enpresa ondo joaten bada, ondoko lokala alokatuko dugu eta **taberna** bat sortuko dugu. Tabernan, gosaltzeko eta meriendatzeko produktu desberdinak salduko ditugu (kafea, pintxoak,...)

### BEZERO POTENTZIALA:



Langileak eta ikasleak izango dira gure zerbitzua erabiliko duten gehienak baina edozeinentzako lekua dugu. Donosti bisitatzera etortzen diren atzerritarrak adibidez edo lan egiteko lekua behar duen beste pertsona batek gure zerbitzua erabili dezakete. Dirua lortzea zailagoa dela ikusten dugu ikasle izanda, horretarako ikasleentzat deskontuak eta bono desberdinak aterako ditugu.



***%10eko deskontua IKASLEENTZAT!***